

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

344/2016 Foru Agindua, azaroaren 21koa, deialdia eta oinarri espezifikoak, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko karrerako funtzionario gisa (administrazio bereziko eskala, azpieskala teknikoa, goi-mailako teknikarien klasea, zuzenbidea) sartzeko hautaketa prozesua arautu behar dutenak

Diputatuen Kontseiluaren abuztuaren 3ko 499/2016 Erabakiaren bidez onartu zen Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko 2016rako enplegu eskaintza, zeinean jasota baitaude dagozkien hautaketa prozesuen bidez hornitu beharko diren plazak.

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko diputatuaren azaroaren 18ko 337/2016 Foru Aginduaren bidez oinarri orokorrak onartu ziren, aipatu den enplegu publikoaren eskaintza horren ondorioz Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorrearen zerbitzura karrerako funtzionario gisa sartzeko hautaketa prozesuak arautuko dituztenak.

Hautaketa prozesu bakoitza gauzatzeko, beharrezkoa da eskala, azpieskala eta klase bakoitzeko plazen deialdia arautu behar duten oinarri espezifikoak argitaratzea, eta horietan plaza bakoitzaren ezaugarri bereziak zehaztu beharko dira.

Diputatu nagusiaren uztailaren 3ko 132/2015 Foru Dekretuaren bidez Arabako Foru Aldundiaren sailak zehaztu ziren. Beste alde batetik, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez funtzio publikoaren arloko eskumenak ezarri ziren, eta otsailaren 9ko 10/2016 Foru Dekretuaren bidez funtzio publikoaren gaietan eskumena duen sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartu ziren. Horietan guztietan ezarritakoarekin bat etorritz,

XEDATZEN DUT

Lehenengo artikulua. Oinarri hauen gai diren hautaprobetarako deia egitea.

Bigarren artikulua. I. eranskin moduan jasotzen diren oinarri espezifikoak onartzea, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko karrerako funtzionario gisa (administrazio bereziko eskala, azpieskala teknikoa, erdi-mailako teknikarien klasea, zuzenbidea) sartzeko hautaketa prozesua arautu behar dutenak.

Hirugarren artikulua. II. eranskin moduan jasotzen den gai zerrenda onartzea.

Laugarren artikulua. Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da bi hilabeteko epean, hura argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua hilabeteko epean, ebazpena hartu duen organo berean. Hori guztia, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzibideen jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz –azaroaren 26ko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan ezartzen duenarekin lotuta–.

Gasteiz, 2016ko azaroaren 21a

Enplegu, Merkataritza eta Turismo, Sustapenaren eta Foru Administrazioaren diputatua
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

I. ERANSKINA

OINARRI ESPEZIFIKOAK

ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALA, AZPIESKALATEKNIKOA, GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KLASEA, ZUZENBIDEAN LIZENTZIADUNA (kodea: 12516)

1. DEI EGITEN DEN PLAZAK

Dei egiten da administrazio bereziko eskalako azpieskala teknikoko goi-mailako teknikarien klaseko 12 plaza –zuzenbidea, A taldea, A1 (A) azpitaldea– oposizio-lehiaketa bidez hornitzeko, ondoren azaltzen den bezala banaturik:

– 9 plaza sistema irekiko txanda orokorrean, honela banaturik:

- 5 plaza derrigortasun datadun 3. hizkuntza eskakizunarekin.
- 4 plaza derrigortasun datarik gabeko 3. hizkuntza eskakizunarekin.

– 1 plaza sistema irekiko ezinduen txandan, derrigortasun datarik gabeko 3. hizkuntza eskakizunarekin.

– 2 plaza barne sustapeneko txanda orokorrean, honela banaturik:

- 1 plaza derrigortasun datadun 3. hizkuntza eskakizunarekin.
- 1 plaza derrigortasun datarik gabeko 3. hizkuntza eskakizunarekin.

2. BETEKIZUNAK

Oinarri orokorretan ezartzen direnez gainera, zuzenbideko lizentzia edo gradua eduki beharko da, edo horiek jaulkitzeko eskubideak ordainduta eduki. Atzerrian lortutako tituluak izatekotan, horien homologazioa frogatzen duen egiaztagiria eduki beharko da.

Halaber, dei egindako 12 plazetako 2 betetzeko, horrez gainera, beharrezkoa izango da B gidabaimena edukitzea.

3. HAUTAKETA PROZESUA

3.1. Oposizio aldia

Aldi honetan, bi ariketa egin beharko dira, nahitaezkoak eta baztertze indarrekoak.

3.1.1. Lehenengo ariketa:

a) Sistema irekia:

Ariketa honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa hamar (10) puntu da. Horren barruan nahitaezko bi proba egin beharko dira:

– Lehenengo proba:

Idatziz erantzun beharko zaio, epaimahaiak erabakitzen duen gehieneko denboran, oinarri hauetako gai zerrendaren zati komuneko edukien inguruko galdetegi bati. Aukeratzeko launa erantzun dituzten galderek osatuko dute galdetegia.

– Bigarren proba:

Idatziz erantzun beharko zaio, epaimahaiak erabakitzen duen gehieneko denboran, oinarri hauetako gai zerrendaren zati espezifikoko edukien inguruko galdetegi bati. Aukeratzeko launa erantzun dituzten galderek osatuko dute galdetegia.

Lehenengo probara aurkeztu ez direnak ezin izango dira inola ere bigarren probara aurkeztu.

Zuzeneko puntuazioa formula honen emaitza izango da: puntuazioa berdin erantzun zuzenen kopurua ken erantzun okerren herena ($P = Z - O/3$). Kontu horretarako, erantzun gabeko galderei ez zaie oker iritziko.

Epaimahaiak erabakiko du, izangaiak nortzuk diren jakin baino lehenago, gutxienerako bost (5) puntuko azken puntuazioa lortzeko beharrezkoa den ezagutza maila.

Kanporatuta geratuko dira bi probetan lortutako puntuazioak baturik bost (5) puntutara heltzen ez diren izangaiak.

Epaimahaiak gutxienerako bost (5) puntuko azkeneko puntuazioa lortzeko beharrezkoa den ezagutza maila ezarri eta gero, zuzeneko puntuazioak azken puntuazio bihurtuko dira, proportziozko banaketa baten arabera, halako moduan non hamar (10) puntuko azken puntuazioa bat datorren gehienez ere lor daitekeen zuzeneko puntuazioarekin. Eragiketa hauek guztiak izangaiak nortzuk diren jakin gabe egingo dira.

b) Barne sustapenerako sistema:

Ariketa hau proba bakarria izango da, eta bat etorriko da sistema irekiko bigarren proba izenerakoarekin.

Sartzeko sistema honetara lehiatzen direnen gehieneko puntuazioa, guztira, hamar (10) puntu izango da, eta gainditzeko irizpideak a) idatz zatian ezarritako berberak izango dira.

3.1.2. Bigarren ariketa

Epaimahaiak planteatutako kasu praktiko edo teoriko-praktiko bat edo gehiago egin beharko dira, honekin batera doan gai zerrendaren zati espezifikoarekin lotuak, hark erabakitzen duen gehieneko denboran.

Ariketa hau egitean izangaiak bakar-bakarrik erabili ahal izango dituzte epaimahaiak, ariketaren izaera eta edukia kontuan harturik, erabakitzen dituen kodeak eta antzekoak edo bestelako material teknikoak.

Bigarren ariketa zero (0) puntutik hamasei (16) puntura kalifikatuko da, eta zortzi (8) puntuko kalifikaziora heltzen ez direnak kanporatuta geratuko dira.

Ariketa hau kalifikatzeko, kontuan hartuko dira erantzunen zehaztasuna, sintesirako eta analisirako gaitasuna, garatutako ideien aberastasuna eta horien azalpenaren argitasuna eta zuzentasuna.

3.2. Euskara proba

Euskara proban, hizkuntza horren ezagutza ebaluatuko da izangaiak hautatzen duen 1., 2., 3. edo 4. hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko proba eginez.

Dauden lau hizkuntza eskakizunetakoren bat egiaztatuta daukatenek edo balio bereko titulu edo ziurtagirietako bat daukatenek euskara ariketak egiteko eguna baino lehenago aurkeztu beharko dituzte titulu edo ziurtagiri horiek egiaztatzen dituzten agiriak, helbide honetan:

Euskara Zerbitzua - Funtzio Publikoko Zuzendaritza - Arabako Foru Aldundiaren Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saila. Probintzia plaza, 14-5.a 01001. Gasteiz.

Hizkuntza eskakizunetakoren bat egiaztatzea hautaketa prozesuaren gainerakoan lor daitekeen gehieneko puntuazioaren gainean baloratuko da, ondoko era honetan:

- 1. HE: 1,63 puntu.
- 2. HE: 2,03 puntu.
- 3. HE: 3,58 puntu.
- 4. HE: 3,98 puntu.

3.3. Lehiaketa aldia

Lehiaketa aldian, izangaiak alegatu eta egiaztatu dituzten merezimenduak aztertu eta baloratuko dira. Haietako bakoitzari merezimenduen baremoaren arabera dagozkion puntuak esleituz egingo da.

3.3.1. Esperientzia

a) Sistema irekia:

Herri administrazioetat jotzen diren erakunde eta organismoetako lan esperientzia baloratuko da, gehienez ere sei (6) puntutaraino, 0,05 punturekin edozein herri administrazioan A1 (A) taldeko lanpostu edo eginkizunetan lan egindako hilabete oso bakoitzeko, baldin eta horretan jarduteko beharrezkoa bazen zuzenbideko lizentzia edo gradua edukitzea, eta edozein lotura juridikoren pean, salbu eta zerbitzuen errentamendu kontratu zibil edo merkataritzakoen, beken eta prestakuntza praktiken bitartez emandako zerbitzuak.

Ondorio horietarako, herri administrazioetat abenduaren 26ko 70/1978 Legeak barnean hartzen dituenak jotzen dira, berekin dakartenak herri administrazioako aurretiazko zerbitzuen aitortpena, merkataritza sozietate publikoak eta fundazioak kanpo daudelarik.

b) Barne sustapeneko sistema:

Lan esperientzia gehienez ere sei (6) puntutaraino baloratuko da, 0,05 punturekin edozein herri administrazioan B (A2) taldeko eskaletan lan egindako hilabete oso bakoitzeko, eta 0,10 punturekin edozein herri administrazioan A (A1) taldeko eskaletan lan egindako hilabete oso bakoitzeko. Bakar-bakarrik konputatuko da Arabako Foru Aldundiak hirurtekoen ondorioetarako aitortutako antzinatasuna.

3.3.2. Informatika ezagutza

Gehienez ere 0,50 puntutaraino IT Txartelaren ziurtatze sistemaren bitartez informatikaren ezagutza mailak egiaztatzeagatik, ondoko baremo honen arabera:

PROGRAMA	PUNTUAK
Windows 7	0,10
Microsoft Word 2010 aurreratua	0,10
Microsoft Word 2000 aurreratua	0,10
Microsoft Word XP aurreratua	0,10
Microsoft Word 2003 aurreratua	0,10
Microsoft Word 2007 aurreratua	0,10
Microsoft Power Point XP	0,10
Microsoft Power Point XP	0,10
Microsoft Power Point 2007	0,10
Microsoft Power Point 2010	0,10
Microsoft Excel XP aurreratua	0,10
Microsoft Excel 2000 aurreratua	0,10
Microsoft Excel 2003 aurreratua	0,10
Microsoft Excel 2007 aurreratua	0,10
Microsoft Excel 2010 aurreratua	0,10
Microsoft Access XP aurreratua	0,10
Microsoft Access 2000 aurreratua	0,10
Microsoft Access 2003 aurreratua	0,10
Microsoft Access 2010	0,10
Microsoft Outlook 2003 (gaztelania)	0,10
Microsoft Outlook 2003 (euskara)	0,10
Microsoft Outlook XP	0,10
Microsoft Outlook 2010	0,10
Internet aurreratua	0,10
Office XP	0,10

Aplikazio baten bertsio jakin baten ziurtapenak baliogabetu egingo ditu bertsio zaharra-
goenak.

Arabako Foru Aldundiak erakunde jaulkitzaileari ofizioz eskatuko dio izangaiek lortu dituzten
egiaztapenak ziurtatzeko, oinarri orokorretan ezarritako epearen barruan.

3.4. Praktika eta prestakuntza aldia

6 hilabete iraungo duen praktika eta prestakuntza aldi bat egingo da, oinarri orokorretan
ezarritakoarekin bat etorritz.

II. ERANSKINA

GAI ZERRENDA

1. GAI KOMUNAK

1. gaia. Espainiako Konstituzioa (I). Oinarrizko eskubide eta eginbeharrak (10-55 artikulua).

2. gaia. Espainiako Konstituzioa (II). Estatuaren lurralde antolamendua (137-158 artikulua).

3. gaia. Europar Batasuna. Erakunde eta organismo nagusiak, haien osaera eta eskumenak:
Kontseilua, Batzordea, Parlamentua, Justizia Auzitegia, Europako Kontu Auzitegia, Eskualdeen
Batzordea, Europako Inbertsio Bankua.

4. gaia. Euskal Herriko Autonomia Estatutua (I). Atariko titulua (1-9 artikulua). I. titulua: Eus-
kal Herriaren eskumenak (10-12 artikulua). II. titulua: Euskal Herriko aginteak (24-39 artikulua).

5. gaia. Euskal Herriko Autonomia Estatutua (II). III. titulua: ogasuna eta ondarea (40-45
artikulua).

6. gaia. Arabako Batzar Nagusiak eta Arabako Lurralde Historikoko Foru Administrazioa (I).
1983ko martxoaren 7ko Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko antolamenduari buruzkoa
(1-14 artikulua).

7. gaia. Arabako Batzar Nagusiak eta Arabako Lurralde Historikoko Foru Administrazioa (II).
1983ko martxoaren 7ko Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko antolamenduari buruzkoa
(15-33 artikulua).

8. gaia. Arabako Batzar Nagusiak eta Arabako Lurralde Historikoko Foru Administrazioa (III).
52/1992 Foru Araua, abenduaren 18koa, Arabako Foru Aldundiaren antolamendu, funtzionamendu
eta araubide juridikoarena (3, 4, 17, 18, 38 eta 39 artikulua). 4/2000 Foru Araua, otsailaren 21ekoa,
Arabako Foru Aldundiko, bere erakunde autonomoetako eta foru sozietate publikoetako goi kar-
gudunen araubidea arautzen duena (1-6 artikulua).

9. gaia. Enplegu Publikoa (I). 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, onartzen
duena enplegatu publikoaren oinarrizko estatutuaren legearen testu bateratua. Langile motak
(8-13 artikulua). Enplegatu publikoen eskubideak (14-20 artikulua). Enplegatu publikoen egin-
beharrak. Jokaera kodea (52-54 artikulua).

10. gaia. Enplegu Publikoa (II). 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa,
onartzen duena enplegatu publikoaren oinarrizko estatutuaren legearen testu bateratua.
Zerbitzu harremana eskuratzea eta galtzea (55-68 artikulua).

11. gaia. Enplegu Publikoa (III). 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa,
onartzen duena enplegatu publikoaren oinarrizko estatutuaren legearen testu bateratua. Ad-
ministrazio egoerak (85-92 artikulua). 6/1989 Legea, euskal funtzio publikoarena. Hizkuntza
normalizazioa (97-99 artikulua).

12. gaia. Administrazioa Prozedura (I). 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenarena. Jarduera arau orokorrak (13-28 artikulua). Epe mugak eta epeak (29-33 artikulua). Egintzen eraginkortasuna (37-42 artikulua).

13. gaia. Administrazioa Prozedura (II). 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenarena. Administrazio prozeduran interesdun denaren eskubideak (53. artikulua). Prozeduraren antolamendua (70-74 artikulua). Ebazpena (87-92 artikulua).

14. gaia. Sektore Publikoko Kontratuak (I). 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, onartzen duena sektore publikoko kontratuen legearen testu bateratua. Xedea eta aplikazio eremua (1-4 artikulua). Kontratu motak (5-11 artikulua). Administrazio kontratuak eta kontratu pribatuak (18-21 artikulua).

15. gaia. Sektore Publikoko Kontratuak (II). 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, onartzen duena sektore publikoko kontratuen legearen testu bateratua. Itunak egiteko askatasuna eta kontratuaren gutxienezko edukia (25-26 artikulua). Baliogabetasun araubidea (31-36 artikulua).

16. gaia. Datuen Babesa. 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 12koa, datu pertsonalen babesarena. Xedapen orokorrak (1-3 artikulua). Datuak babesteari buruzko printzipioak (4-12 artikulua). Pertsonen eskubideak (13-19 artikulua).

17. gaia. Gardentasuna. 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunaren, informazio publikoa eskuratzearen eta gobernu onarena. Aplikazio eremu subjektiboa (2-4 artikulua). Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea (12-16 artikulua). Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea gauzatzea (17-22 artikulua).

18. gaia. Berdintasun Politikak. Printzipio orokorrak eta babesa. Politika publikoak: printzipio orokorrak (3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoa: 3-22 artikulua). EAEko herri administrazioen esparruko neurriak (Eusko Legebiltzarren 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerakoa: 18-22 artikulua).

2. GAI ESPEZIFIKOAK

19. gaia. ADMINISTRAZIO PROZEDURA (I). 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearena. Prozeduran interesdun direnak (3-12 artikulua). Administrazio publikoen jarduera (13-33 artikulua). 10/1995 Foru Araua, Foru Administrazioaren administrazio isiltasunaren araubidearena.

20. gaia. ADMINISTRAZIO PROZEDURA (II). 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearena. Administrazio egintzak (34-52 artikulua). Administrazio prozedurari buruzko xedapenak (53-74 artikulua).

21. gaia. ADMINISTRAZIO PROZEDURA (III). 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearena. Prozeduraren instrukzioa (75-83 artikulua). Prozedura amaitzea (84-95 artikulua). Ebazpenak betearaztea (97-105 artikulua). Egintzak administrazio bidetik berrikustea (106-126).

22. gaia. FORU ADMINISTRAZIOA 52/1992 Foru Araua, abenduaren 18koa, Arabako Foru Aldundiaren antolamendu, funtzionamendu eta araubide juridikoarena. Foru Administrazioa. Administrazio antolamendua (70-76 artikulua). Administrazio jarduna (77-90 artikulua). Eskumenak beste batzuen eskuetan uztea (91-96). Izaera orokorreko xedapenak eta administrazio ebazpenak (97-111 artikulua).

23. gaia. KONTSULTA ADMINISTRAZIOA. Kontsulta Batzordea. Diputatuen Kontseiluaren 40/1999 Foru Dekretua, martxoaren 30ekoa.

24. gaia. ADMINISTRAZIOAREN JARDUNA. 15/1987 Foru Araua, urriaren 30ekoa, deszentralizatutako foru zerbitzu publiko eta ekonomia jarduerena. Xedapen orokorrak. Foru erakunde autonomoak eta sozietate publikoak. Zerbitzuen zeharkako kudeaketa.

25. gaia. 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, sektore publikoaren araubide juridikoarena. Xedapen orokorrak (1-4 artikulua). Administrazio publikoetako organoak (5-24 artikulua). Zehatzeko ahalaren printzipioak (25-31 artikulua). Administrazio publikoen ondare erantzukizuna (32-37 artikulua). Sektore publikoaren funtzionamendu elektronikoa (38-46 artikulua).

26. gaia. ZEHAPEN ARAUBIDEA (I). Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen zehapen ahala; otsailaren 20ko 2/1998 Legea. Aplikazio eremua. Zehapen ahala gauzatzeko arau orokor substantiboak.

27. gaia. ZEHAPEN ARAUBIDEA (II). Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen zehapen ahala; otsailaren 20ko 2/1998 Legea. Zehapen ahala gauzatzeko prozeduraren xedapen orokorrak.

28. gaia. ZEHAPEN ARAUBIDEA (III). 17/1993 Foru Araua, maiatzaren 30ekoa, Arabako Foru Aldundiaren zehapen araubidea arautzen duena.

29. gaia. 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, onartzen duena sektore publikoko kontratuen legearen testu bateratua (I). Xedapen orokorrak. Sektore publikoko kontratazioari buruzko xedapen orokorrak. Kontratuko alderdiak. Kontratuaren xedea, prezioa eta zenbatekoa. Sektore publikoko kontratazioetan eska daitezkeen bermeak. Kontratuak aldatzea.

30. gaia. 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, onartzen duena sektore publikoko kontratuen legearen testu bateratua (II). Administrazio publikoen kontratuak prestatzea. Beste kontratu batzuk prestatzea.

31. gaia. 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, onartzen duena sektore publikoko kontratuen legearen testu bateratua (III). Kontratuak esleitzea. Arrazionalizazioa. Kontratazioaren teknika.

32. gaia. 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, onartzen duena sektore publikoko kontratuen legearen testu bateratua (IV). Administrazio kontratuen ondorioak, haien betetzea eta azkentzea, arau orokorrak. Arau bereziak obra kontratu, obra publikoaren emakida, zerbitzu publikoen kudeaketa, hornikuntza eta zerbitzuetarako, eta sektore publikoaren eta sektore pribatuaren arteko lankidetzarako.

33. gaia. 11/2016 Foru Araua, urriaren 19koa, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzena. Foru Arauaren aplikazio eremua (1-5 artikulua). Dirulaguntza publikoen xedapen komunak (6-19 artikulua). Arau haustek eta zehapenak dirulaguntzen arloan (54-70).

34. gaia. DATUEN BABESA. 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 12koa, datu pertsonalen babesarena. Titulartasun publikoko fitxategiak (20-24 artikulua). Datuak babesteko agentzia (35-42). Arau haustek eta zehapenak (43-49 artikulua).

35. gaia. ARAUGINTZA TEKNIKA. Izaera orokorreko xedapenak egiteko prozedura eta araugintza teknikari buruzko jarraibideak: Diputatuen Kontseiluaren 48/2003 Foru Dekretua, uztailaren 31koa.

36. gaia. ARBITRAJE BATZORDEA (I). Eusko Legebiltzarraren 13/1994 Legea, ekainaren 30ekoa. Xedapen orokorrak, osaera, kideak, organoak, eraketa eta funtzionamendua.

37. gaia. ARBITRAJE BATZORDEA (II). Eusko Legebiltzarraren 13/1994 Legea. Arbitraje Batzordearen aurreko prozedurari buruzko xedapen komunak. Eskumen arazoak. Arbitraje Batzordearen erabakia. Eskumen gatazka positiboak eta negatiboak. Eskumen gatazka ebaztea.

38. gaia. ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN JURISDIKZIOA (I). Administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren Legea. 29/1998 Legea, uztailaren 13koa. Administrazioarekiko auzien

jurisdikzioaren organoak eta haien eskumen arauak. Administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren hedapena: klausula orokorraren helmena. Administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren mugak: 1) mugaketa negatiboa: kanpoan geratzen diren gaiak eta besterenak diren gaiak; 2) mugaketa positiboa: auzien jurisdikzioaren eskumen ematea.

39. gaia. ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN JURISDIKZIOA (II). 29/1998 Legea, uztailaren 13koa. Lehen auzialdiko edo auzialdi bakarreko prozedura: jartzeko epea; salatutako administrazioak espedientea helaraztea; epatzeak eta jakinarazpenak. Prozedura laburtua: kasuak. Epaia: baiestearen eta ezestearen ondorioak. Prozedura amaitzeko beste modu batzuk. Epaia exekututzea: prozedura, diru zehapena eta zergen eta langileen alorreko ondorioak.

40. gaia. KONSTITUZIO AUZITEGIA. 2/1979 Lege Organikoa, urriaren 3koa, konstituzio auzitegiarena: Konstituzio Auzitegiaren eskumenak. Konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsioa. Konstituzioaren babeseko errekurtsioa. Foru autonomia defenditzeko gatazkak. Lurralde historikoen zergen foru arauen aurkako errekurtsioak. Prozedurari buruzko xedapen komunak.

41. gaia. FORU ALDUNDIA. 52/1992 Foru Araua, abenduaren 18koa, Arabako Foru Aldundiaren antolamendu, funtzionamendu eta araubide juridikoarena. Foru Aldundiaren eta Batzar Nagusien arteko harremanak: gobernu jardunaren bultzada eta kontrola, Aldundiaren erantzukizuna Batzar Nagusien aurrean, eskumen gatazkak, araugintzarako eskuordetza. Foru Arau Proiektuak egitea.

42. gaia. BATZAR NAGUSIAK (I). Hauteskundeak. 1/1987 Euskal Legea, martxoaren 27koa, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde historikoetako batzar nagusietarako hauteskundeena.

43. gaia. BATZAR NAGUSIAK (II). Apirilaren 22ko 17/2013 Foru Arauaren bidez onartutako araudia. Eraketa. Batzarkideak. Batzarkide taldeak.

44. gaia. BATZAR NAGUSIAK (III). Apirilaren 22ko 17/2013 Foru Arauaren bidez onartutako araudia. Batzar Nagusien antolamendua: Mahaia. Bozeramaileen Batzordea. Batzordeak eta batzorde txostengileak. Osoko bilkura.

45. gaia. BATZAR NAGUSIAK (IV). Apirilaren 22ko 17/2013 Foru Arauaren bidez onartutako araudia. Funtzionamendu arau orokorrak: saioak, eguneko gaien zerrenda, debateak, bozketak, epeen kontaketa eta dokumentuak aurkeztea, presako deklaraztea, Batzar Nagusien lanak argitaraztea.

46. gaia. BATZAR NAGUSIAK (V). Apirilaren 22ko 17/2013 Foru Arauaren bidez onartutako araudia. Araugintza prozedura. Araugintza prozedura arrunta. Prozedura arruntaren berezitasunak. Araugintza prozeduraren berezitasunak. Presako prozedura. Aurrekontuaren Foru Arau Proiektua. Kontu orokorrak onartzea. Araudiaren erreforma.

47. gaia. BATZAR NAGUSIAK (VI). Apirilaren 22ko 17/2013 Foru Arauaren bidez onartutako araudia. Batzar Nagusiek Foru Aldundia kontrolatzea: diputatu nagusia izendatzea, Foru Aldundiaren erantzukizun politikoa, politika orokorrari buruzko debateak, interpelazioak eta galderak. Mozioak, Foru Aldundiaren jakinarazpenak eta informazio saioak. Foru Aldundiak planteatutako eskumen gatazkak izapidetzea.

48. gaia. TOKI ADMINISTRAZIOA (I). 1/1985 Legea, apirilaren 2koa, toki araubidearen oinarriena. Xedapen orokorrak (1-10 artikulua). Udalerria (11-30 artikulua). Toki araubidearen arloan indarrean dauden lege xedapenen testu bateratua, 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 18koa. Udalerria. Lurraldea eta biztanleria (2-17 artikulua). Antolamendua (18-24 artikulua).

49. gaia. TOKI ADMINISTRAZIOA (II). 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko toki erakundeena. Legearen xedea eta printzipioak (1-7 artikulua). Udalerria eta gainerako euskal toki erakundeak (8-13 artikulua). Udal eskumenak (14-24 artikulua).

50. gaia. LURRALDE HISTORIKOEN LEGEA. 27/1993 Legea, azaroaren 25ekoa. Euskal Herriko ogasun orokorra, foru ogasunak eta baliabideen banaketa ogasun orokorraren eta foru ogasunen artean.

51. gaia. EKONOMIA ITUNA (I). 12/2002 Legea, maiatzaren 23koa. Lurralde historikoetako erakunde komunak eskumenak. Printzipio orokorrak. Zerga harmonizazioa. Lankidetzaren printzipioa. Estatuaren eskumen eskusiboak.

52. gaia. EKONOMIA ITUNA (II). 12/2002 Legea, maiatzaren 23koa. Aplikatu beharreko araudia, exakzio eskumena eta loturak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan, ondarearen gaineko zergan, sozietateen gaineko zergan, ez egoiliarren errentaren gaineko zergan, oinordetza eta dohaintzen gaineko zergan.

53. gaia. EKONOMIA ITUNA (III). 12/2002 Legea, maiatzaren 23koa. Aplikatu beharreko araudia, exakzio eskumena eta loturak balio erantsiaren gaineko zergan, ondare eskualdaketen zergan, zerga berezietan, aseguru primen gaineko zergan, zenbait hidrokarburoren txikizkako salmenten gaineko zergan, jokoaren gaineko tributuetan, tasetan eta toki ogasunetan.

54. gaia. EKONOMIA ITUNA (IV). 12/2002 Legea, maiatzaren 23koa. Kudeaketa arauak eta prozedura. Finantza harremanak: arau orokorrak, kupoa zehazteko metodologia.

55. gaia. EKONOMIA ITUNA (V). 12/2002 Legea, maiatzaren 23koa. Batzorde mistoa. Arauak Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordea. Arbitraje Batzordea. Arbitraje Batzordearen Arautegia. 1760/2007 Errege Dekretua, abenduaren 28koa: izaera, eskumenak, antolamendua eta funtzionamendua.

56. gaia. ZERGA HARMONIZAZIOA, KOORDINAZIOA ETA LANKIDETZA. 3/1989 Legea, maiatzaren 30ekoa. 4/1998 Legea, martxoaren 6koa, aldatzen duena maiatzaren 30eko 3/1989 Legea, zerga harmonizazio, koordinazio eta lankidetzarena.

57. gaia. ZERGEN FORU ARAU OROKORRA (I). 6/2005 Foru Araua, otsailaren 28koa. Printzipio orokorrak. Zerga arauak: arauen iturriak, zerga arauen aplikazioa, interpretazioa, kalifikazioa eta integrazioa. Zergen kontzeptua, xedeak eta motak. Zerga harreman juridikoa. Zerga betebeharrak. Zerga administrazioaren betebeharrak eta eginbeharrak. Zergapekoen eskubideak.

58. gaia. ZERGEN FORU ARAU OROKORRA (II). 6/2005 Foru Araua, otsailaren 28koa. Zergapeko motak. Oinordekoak. Zerga erantzuleak. Jarduteko gaitasuna zerga ordenan. Zerga egoitza. Zerga betebeharrak nagusia eta konturako ordainketak egiteko betebeharrak kuantifikatzeko elementuak. Zerga zorra: xedapen orokorrak, ordainketa, preskripzioa. Zerga zorra azkentzeko beste modu batzuk. Zerga kredituaren bermeak.

59. gaia. ZERGEN FORU ARAU OROKORRA (III). 6/2005 Foru Araua, otsailaren 28koa. Zerga prozedurak. Informazioa eta laguntza zergapekoei. Gizartearen laguntza zergen aplikazioan. Zerga jardunei eta prozedurei buruzko arau komunak. Zergen alorreko administrazio prozeduren berezitasunak. Froga. Jakinarazpenak. Zergapekoen etxean sartzea. Salaketa publikoa. Egiaztatze eta ikertzeko ahala eta eginkizunak. Iruzurraren aurkako borroka.

60. gaia. ZERGEN FORU ARAU OROKORRA (IV). 6/2005 Foru Araua, otsailaren 28koa. Berrikuspena administrazio bidean. Arau komunak. Berraztertze errekurtsoa. Erreklamazio ekonomiko-administratiboak. Prozedura ekonomiko-administratiboa. Administrazioarekiko auzi errekurtsoa.

61. gaia. ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO ERREPIDEEN FORU ARAUA (I). 20/1990, ekainaren 20koa. Xedea eta aplikazio eremua. Errepideen titulartasuna. Arabako Lurralde Historikoaren eskumenak errepideen eta bideen arloan. Araugintza ahala eta arlo horretan ematen dituen xedapenen izaera juridikoa. Lurralde antolamendua, hirigintza eta errepideen arloko plangintza ahala. Euskal Herriko errepideen plan orokorra. Arabako errepideen plan integrala.

62. gaia. ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO ERREPIDEEN FORU ARAUA (II). 20/1990 Foru Araua. Egin, hobetu eta mantentzea. Finantzatu eta ustiatzea.

63. gaia. ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO ERREPIDEEN FORU ARAUA (III). 20/1990 Foru Araua. Errepideen erabilera eta polizia: arau orokorrak, errepideen erabilera, baimenen araubidea, esku hartzea eta kontrola.

64. gaia. NAHITAEZKO DESJABETZEA (I). Nahitaezko desjabetzea. Desjabetzeko ahala: izaera eta justifikazioa. Desjabetzeko ahalaren elementuak: subjektuak, xedea, arrazioa eta edukia. Desjabetze prozedura arrunta eta presakoa: aurretiko betekizunak eta faseak.

65. gaia. NAHITAEZKO DESJABETZEA (II). Prezio justua zehazteko prozedura. Balorazioak. Higienezin baloratzeko irizpide orokorrak. Balorazioa landa lurzoruan eta hiri lurzoruan. Hirigintza jarduketa berrietan parte hartzeko ahalmenaren kalte ordaina. Urbanizazio edo eraikuntza jarduketan ekimenaren eta sustapenaren kalte ordaina. Lurzoruaren balorazioa onuren eta kargen berdinbanatze araubidean. Bidezko beste ondare eskubide eta interes batzuen balorazioa.

66. gaia. NAHITAEZKO DESJABETZEA (III). Prezio justua ordaintzea eta erak. Desjabetuaren bermeak: berandutze interesak, birtasazioa eta itzultzea. Okupazioa eta jabetza erregistroan inskribatzea. Itzulketa. Prezio justua jasotzearen zerga ondorioak.

67. gaia. Lurzoruaren jabetza araubidea. Lurzoruaren jabetza eskubidearen edukia: ahalmenak, eginbeharrak eta kargak. Lurzoruaren oinarritzko egoerak eta hirigintzako sailkapena.

68. gaia. HIRIGINTZAKO DESJABETZEA. Legitimazioa. Desjabetze kasuak. Desjabetzea jarduteko sistema gisa. Desjabetzea jarduketa isolatuetan. Zuzeneko okupazioa.

69. gaia. FUNTZIONARIO PUBLIKOEN ESKUBIDE KOLEKTIBOAK. 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, onartzen duena enplegatu publikoaren oinarritzko estatutuaren legearen testu bateratua. Negoziazio kolektiborako, ordezkaritzarako eta erakundeetan parte hartzeko eskubidea. Biltzeko eskubidea (31-46 artikulua).

70. gaia. DIZIPLINA ARAUBIDEA. 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, onartzen duena enplegatu publikoaren oinarritzko estatutuaren legearen testu bateratua (93-98 artikulua) eta 6/1989 Legea, euskal funtzio publikoarena. (82-90 artikulua).

71. gaia. ENPLEGU PUBLIKOAREN ANTOLAMENDUA. 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, onartzen duena enplegatu publikoaren oinarritzko estatutuaren legearen testu bateratua (69-84 artikulua) eta 6/1989 Legea, euskal funtzio publikoarena. (13-34 artikulua).

72. gaia. BATERAEZINTASUNAK. 53/1984 Legea, abenduaren 26koa. Administrazio publikoaren zerbitzura dauden langileen bateraezintasun araubidea.

73. gaia. ARABAKO FORU ALDUNDIAREN ESKUMENAK LURREKO GARRAIOAREN ARLOAN (I). Euskal Herriko Autonomia Estatutua eta Lurralde Historikoen Legea. Lurreko garraioa antolatzeko Legea eta Arautegia. 16/1987 Legea, uztailaren 30ekoa, eta 1211/1990 Errege Dekretua, irailaren 28koa. Printzipio orokorrak. Eskumenen araubidea eta haien koordinazioa.

74. gaia. ARABAKO FORU ALDUNDIAREN ESKUMENAK LURREKO GARRAIOAREN ARLOAN (II). 5/1987 Lege Organikoa, uztailaren 30ekoa, Estatuak errepide eta kable garraioa ahalmenak autonomia erkidegoei eskuordetzearena. Konstituzio Auzitegiaren osoko bilkuraren 118/1996 Epaia, ekainaren 27koa.

75. gaia. LURREKO GARRAIOAREN ARAUDIA (I). Lurreko garraioa antolatzeko legea eta arautegia. 16/1987 Legea, uztailaren 30ekoa, eta 1211/1990 Errege Dekretua, irailaren 28koa. Errepideko garraio zerbitzuak eta jarduerak. Sailkapena. Bidaiarien garraioa. Bidaiarien garraio publiko erregularra: bidaiarien erabilera orokorreko garraio publiko erregularra; esleipena, us-tiapena, bateratzea eta emakiden azkentzea; erabilera bereziko garraio erregularra. Bidaiarien garraio publiko diskrezionala. Bidaiarien garraio pribatua.

76. gaia. LURREKO GARRAIOAREN ARAUDIA (II). Lurreko garraioa antolatzeke legea eta arautegia. Salgaien garraioa. 16/1987 Legea, uztailaren 30ekoa, eta 1211/1990 Errege Dekretua, irailaren 28koa. Salgaien garraio publiko diskrezionala: baimenak eta araubide juridikoa. Salgaien garraio pribatu osagarria.

77. gaia. LURREKO GARRAIOAREN ARAUDIA (III). Lurreko garraioa antolatzeke legea eta arautegia. 16/1987 Legea, uztailaren 30ekoa, eta 1211/1990 Errege Dekretua, irailaren 28koa. Beste garraio mota berezi batzuk: ofiziala, osasun arlokoa, hileta zerbitzuetakoa, salgai arriskutsuena eta salgai galkorra. Nazioarteko garraioa. Errepideko garraioaren lagungarri eta osagarri diren jarduerak.

78. gaia. LURREKO GARRAIOAREN ARAUDIA (IV). Lurreko garraioa antolatzeke legea eta arautegia. 16/1987 Legea, uztailaren 30ekoa, eta 1211/1990 Errege Dekretua, irailaren 28koa. Arau hausteen administrazio erantzukizuna. Arau hauste motak. Zehapen prozedura. Zehapenak exekutatzea.

79. gaia. LURREKO GARRAIOAREN ARAUDIA (V). Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 561/2006 Arautegia, martxoaren 15ekoa: aplikazio eremua. Salbuespenak. Gidatzeko denboren eta atsedenen arauak. Enpresen erantzukizuna.

80. gaia. LURREKO GARRAIOAREN ARAUDIA (VI). Bidaiarien hiri barruko eta hiri arteko garraio publikoa turismo ibilgailuetan: Eusko Legebiltzarraren 2/2000 Legea, ekainaren 29koa. 243/2002 Dekretua, urriaren 15ekoa, onartzen duena bidaiarien hiri barruko eta hiri arteko turismo ibilgailuen bidezko garraio publikoaren arautegia.

81. gaia. ARBITRAJE BATZORDEAK. Lurreko garraioa antolatzeke legea eta arautegia. Arbitraje batzordeen arauak: eskumenak, eginkizunak, antolamendua eta prozedura.

82. gaia. Gizarte zerbitzuen erregistroak EAEn. Arabako gizarte zerbitzuen erregistroaren izaera eta egitura. Erregistro horretako inskripzioen prozedura eta ondorioak.

Diputatuen Kontseiluaren 25/1999 Foru Dekretua, otsailaren 23koa, Arabako gizarte zerbitzuen erregistroa sortu eta haren antolamendu eta funtzionamendu arauak ezartzen dituena. 1999ko martxoaren 24ko ALHAO, 33. zenbakia. 155/2012 Dekretua, uztailaren 24koa, gizarte zerbitzuen erregistroa. 2012ko abuztuaren 2ko EHAA, 150. zenbakia.

83. gaia. Ekimen pribatuaren esku hartzea gizarte zerbitzuak ematean. Gizarte zerbitzuen zentro eta zerbitzuen baimena. 40/1998 Dekretua, martxoaren 10ekoa, arautzen duena Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen baimena, erregistroa, homologazioa eta ikuskatzea. 1998ko apirilaren 2ko EHAA, 63. zenbakia. 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, gizarte zerbitzuena. 2008ko abenduaren 24ko EHAA, 246. zenbakia.

84. gaia. Gizarte zerbitzuen ikuskatzea. Eusko Jaurlaritzaren, foru aldundien eta udalen eskumenak: lege oinarria, izaera, eginkizunak eta eremua. 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, gizarte zerbitzuena. 238/2010 Dekretua, irailaren 14koa, gizarte zerbitzuen arloko goi ikuskatzearena.

85. gaia. Gizarte zerbitzuen ikuskatzea: ikuskatze prozedura, ikuskatze aktak eta txostenak. Ikuskatzearen ondorioak. Arau hausteen eta aplikatu beharreko zehapenen araubidea.

40/1998 Dekretua, martxoaren 10ekoa, arautzen duena Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen baimena, erregistroa, homologazioa eta ikuskatzea. 1998ko apirilaren 2ko EHAA, 63. zenbakia. Otsailaren 20ko 2/1998 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen zehapen ahalarena.

86. gaia. Gizarte zerbitzuetako prestazio eta zerbitzu eskubideak; haiek arautu eta antolatzea EAEn. Gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eta haietako profesionalen eskubideak eta eginbeharrak. 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, gizarte zerbitzuena. 2008ko abenduaren 24ko EHAA, 246. zenbakia. 64/2004 Dekretua, apirilaren 6koa, onartzen dituena Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eta haietako profesionalen eskubideak eta eginbeharrak, eta iradokizun-kexen araubidea.

87. gaia. ONDAREAREN ARAUBIDEA (I). 5/1998 Foru Araua, otsailaren 3koa, Arabako Lurralde Historikoko ondarearena: araubide juridikoa, edukia, titulartasuna, administrazioa eta ondasunen ordezkaritza. Herri administrazioen ondarea. 33/2003 Legea, azaroaren 23koa: legearen xedea eta aplikazio eremua. Kontzeptua. Sailkapena. Jabari publikoko ondasun eta eskubideak. Jabari publikoko ondasun eta eskubideei eta jabari pribatuko ondasun eta eskubideei buruzko printzipioak.

88. gaia. ONDAREAREN ARAUBIDEA (II). 5/1998 Foru Araua eta 33/2003 Legea. Ondasun eta eskubideak eskuratzea: eskuratzeko moduak. Higiezin hutsak. Kostu bidez eskuratzea. Jaraunspen bidez eskuratzea. Dohain bidez eskuratzea. Okupazioa. Desjabetze ahala gauzatzearen ondorioz eskuratzea. Exekuzio prozeduren eta prozedura judizial eta administratiboen bidez eskuratzea. Prozedura eta eskumena ondasun eta eskubideak eskuratzeko, ondasunen errentamendurako eta erabilera lagapenak onartzeko Arabako Lurralde Historikoan. Prozedura eta organo eskumendunak Arabako Lurralde Historikoaren ondasunak, jabetza gorpuzgabeak, akzioak eta partaidetzak besterendu eta trukatzeko.

89. gaia. ONDAREAREN ARAUBIDEA (III). 5/1998 Foru Araua eta 33/2003 Legea. Ondasunen eta eskubideen afektazioa, desafektazioa eta destino aldaketa. Ondasun eta eskubideak atxiki eta desatxikitzea. Prozedura eta eskumenak Arabako Lurralde Historikoaren ondasunen afektazio, desafektazio eta destino aldaketarako otsailaren 3ko 5/1998 Foru Arauan.

90. gaia. ONDAREAREN ARAUBIDEA (IV). 5/1998 Foru Araua eta 33/2003 Legea. Lurralde Historikoaren ondasun eta eskubideen erabilera eta ustiapena: printzipioak, prozedurak eta eskumenak. Jabari publikoko ondasun eta eskubideen erabilera. Jabari pribatuko ondasun eta eskubideen aprobetxamendua eta ustiapena. Jabari publikoko baimenak eta emakidak. Prozedura eta eskumenak Arabako Lurralde Historikoaren ondasunen baimenak eta emakidak emateko.